

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

UDAL BERRIAK

Autobus-zerbitzua

Zallako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari autobusen maiztasuna eta ordutegiak hobetzeko eskatu zion, Enkarterriko eskualdean autobus-zerbitzua hobetzeko asmoz. Beste udal batzuekin batera, zerbitzuaren inguruan eskaera **17** gain, zenbait proposamen zehatz egin zituen udalerriaren alde. Honako hauek ezartzeko eskatu zuen, **18**: gaueko zerbitzuak, Enkarterriko mendebaldeko udalerriak eta eskualdeko toki nagusiak lotzen dituen zerbitzua, eta Bilbo eta Zalla lotzen dituen zerbitzu espresa.

Proposamenak **19** ondoren, Aldundiak erantzun egin du. Gaueko zerbitzuei dagokienez, **20** du oraingoz atzeratzea aisialdira zuzendutako gaueko zerbitzuak ematea, eta **21** ematea batez ere lanera edo ikastera joateko mugikortasun-beharrizanei aurre egiteko zerbitzuei.

Udalerri periferikoak eskualdeko herri nagusiekin lotzeko zerbitzuaren kasuan, Aldundiak uste du gaur egungo **22** egokia dela, bidaiarien eskaera aintzat hartuta.

Azkenik, Bilbora joateko zerbitzu espresari dagokionez, Foru Aldundiak adierazi du gaur egungo eskaera **23** dagoela Bizkaiko hiriburura 30 minutuan behin doazen autobusekin; eta **24**, FEVEren trenbide-sarea edo Cadaguako Korridorea ere erabil daitezkeela.

Bestalde, eskualdeko zerbitzuaren **25** hobetzeko, Enkarterriko udalerri batzuek egindako eskaera **26** dagokionez, Aldundiak honako hau erantzun du: batetik, proposamenak kontuan hartuko dituela, eta, bestetik, behin betiko proiektuan sartuko duela udalerri horiei **27** dieten zerbitzuen definizioa, udalek planteatu duten proposamenaren ahalik eta antzekoena, gainera.

<Zallainfo>, 2013ko urtarrila-otsaila. Egokitua.

Herri-lanak

Zalla inguruan egindako Mugikortasun Plana aintzat hartuta, lehenengo jarduerak egin dira bide-antolamendua hobetzeko asmoz. Orain arte, bertan zeuden bideen **28** mugak eta autobus publikorako geltokirik ez egoteak inguru horretako ibilgailuen trafikoa etengabe **29** eragin dute, eta horrekin batera, trafikorik gehien egon ohi den puntako orduetan, zirkulazio-arazo larriak eragin ditu. Proposatutako jardueren helburua da autobus-geltokiak berriz **30** eta autobus publikoen geltokirako gune espezifikoak proposatzea.

Aipatutako obrekin batera, Zallako Udalak egokitzen jo du gune horietako oinezkoen galtzadetan irisgarritasuna **31**. Horrela, hirigunean zeuden traba arkitektonikoak murriztu egingo dira, eta minusbaliotasuna eta **32** murriztua duten pertsonei garraioa erabiltzeko erraztasunak emango zaizkie.

33, aipatutako bi jarduerekin batera, eta horiek guztiak barne hartzeko asmoz, oinezkoentzako hiru **34** goratu egin dira:

1. gunea: Marista anaiak kalean, udaletxearen tartean, bi goratu.
2. gunea: Marista anaiak kalean, bidaia-agentziaren ondoko semaforoan dagoena goratu.

<Zallainfo>, 2012ko iraila-urria. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

17. a) jabetzeaz
b) eusteaz
c) aurkezteaz
d) aholkatzeaz

18. a) hain zuzen ere
b) bestela
c) ordea
d) hala ere

19. a) aztertu
b) banatu
c) azpimarratu
d) trukatu

20. a) okertu
b) gomendatu
c) sortu
d) sakondu

21. a) zaletasuna
b) egonaldia
c) lehentasuna
d) estualdia

22. a) eskubidea
b) sustraia
c) ordezkioa
d) eskaintza

23. a) kokatuta
b) berrituta
c) bultzatuta
d) beteta

24. a) aldiz
b) gainera
c) beraz
d) horretarako

25. a) baldintzak
b) aitzakiak
c) irudiak
d) bezeroak

26. a) bakartiar
b) baztertuari
c) axolagabeari
d) bateratuari

27. a) ekiten
b) abiatzen
c) jokutzen
d) eragiten

28. a) marrazketaren
b) zabaleraren
c) erakusketaren
d) harreraren

29. a) haustea
b) oztopatzea
c) zorroztea
d) bizkortzea

30. a) oinarritzea
b) salatzea
c) ezartzea
d) astintzea

31. a) sailkatzea
b) jasatea
c) hobetzea
d) igarotzea

32. a) ondasun
b) bizitasun
c) mugikortasun
d) adostasun

33. a) Era berean
b) Orduan
c) Horregatik
d) Azken batean

34. a) aurkibide
b) pasarte
c) bidezain
d) pasabide